

BIDANKOZARTE

Lege gordailu: NA 2365-2015

Bidankoze hiriko aldizkari historiko-kulturala

Edukiak

- Bost urte 1
- Guardia zibil bat... bidankoztarra? 1
- Bidankozeko abizenak: Paskel 2
- Paskeldarren noblezia 2
- Peña etxea..... 3
- Auzia txerritegi batengatik 3
- Toponimia: *Iturribeltza* 4
- Donata Jimeno Ornaten mendeurrena (1991/08/07) 4

Kontaktua:

bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:

www.vidangoz.com/bidankozarte/



Severo Perez Arriola [Diego] eta Dolores Goienetxe Krutzaga [Otsagabia]ren urrezko ezteiak 1952an

Guardia zibil bat... bidankoztarra?

Hara! Hau bai ezustekoa! Ziur, horrelako zerbaiten inguruko apustu egin izan baligute, ezetz esango genukeela. Inolaz ere ez genuke pentsatuko jatorriz Bidankozekoa zen guardia zibilik izan denik. Asko jota, Bidankozen jaio bazen, herritik pasatzen zen norbaiten semea izanen zela, karabinero, mediku edo idazkariren baten semea edo antzeko zerbait. Ba apustu hori egin izan bagenu, etxea, lurrak,azienda eta jokoan jarritako guztia galdu izanen genuke. Izan ere, bai izan zela jatorri bidankoztarra zuen eta trikornioa jarri zuen gizon bat.

Artikulu honekin datorren argazkiaren goiko aldean, bi guardia zibil ikus daitezke. Ziurrenik agintari moduan gonbidatutakoak, baina artikulu honetan ikusiko duzuenaren arabera, litekeena da argazkian agertzeak garaiko ohitura zena baino haratago joatea.

Argitu dezagun baina, halako jakinmina sortzen duen afera. Nor izan zen guardia zibil bidankoztar hura? Ba Jose Maria Arriolari buruz ari gara. *Arriola* etxekoa eta jatorriz Garaioakoa zen Angel maria Arriola arotzaren

eta *Santxena* etxeko Maria Gregoria Mainzen semea zen. Beraz, Severo Perez Arriolaren osaba izango zen, baina argazkian 90 urte inguru izango zituen, beraz ezinezkoa da.

Jose Mari, 1963an jaio zen, eta Arriola Mainz hamar anai-arrebetatik gazteena zen, haietako lau urtebete izan aurretik hilda. Horrelako ikuspegiarekin, etxean bereziki eta bere inguruan orokorrean etorkizun beltza izanik, beste askok egin zuten gisara, Ameriketara joateko erabakia hartu zuen. Baina gehiengoak ez bezala, honek Puerto Ricorako bidean abiatu zen 1882an. Herralde horretan, Cayey izeneko hirian zehazki, 1887an ezkongabe, musikari eta guardia zibila bezala ageri da, orden honetan.

Momentuz ezin izan dut Jose Arriolari buruzko ezer gehiago argitserik izan, baina aurkitutakoa bada bitxia behintzat.

Honekin beste behin, hainbestetan erabiltzen den esaera zahar horrek indarra hartzen du: *‘Ez esan inoiz ur honetatik ez dut edango’*. Eta gure kasuan *‘guardia zibil hau ez da nire herrikoa’*.

Bost urte

Badirudi atzo izan zela argitalpen txiki hau martxan jarri zenean eta uda honetan dagoeneko bost urte beteko ditu Bidankozeko leku-izenak ezagutarazten, bere etxearen historia ikertzen, antzinako hitzak oroitzen, aspaldiko ohiturak burura ekartzen, ahaztutako istoriak berreskuratzen, Mariano Mendigatxa berrirakurtzen...

Aldizkaritxo hauen gain, *Bidankozarte*ko ekintza ikertzailea emankorra izan da eta gure herriaren historia eta hemerrotekaren inguruko hainbat lan ikusi dute argia.

Garaia da, beraz, egindakoa ospatzeko eta ilusioarekin jarraitzeko gutxienez beste bost urtez, aurrekoak bezain uzta ona (edo hobea ahal bada) uzteko.

Gogo eta ideiak behintzat ez dira faltako...



Paskeldarren noblezia

Erronkaribarren, bertokoak taldekaparetasuna zuten XV. mendetik, eta horri esker gainerakoek ez zuten pribilegio batzuk aprobetxatu ahal zituzten.

Emandako egun batean, Ezkako Salbatieran jaiotako batzuk haien kaparetasunetik etekin ateratzeko aukera izan zuten (nonbait Paskel familia horrek baitzuen gaitasun hori)

Horretarako, 1780. urtean, don Thomas Paskel eta Gartzes (*Hiriburu honetako Milizia Espainolen Probintziako Batailoaren Kapitaina*) bere nobleziaren inguruko txostenak eskatu zizkion Salbatierako Aizabulguari berarentzat, bere arbasoentzat eta hiru ilobentzat, hiri horretako Burguko karrikan dagoen Paskel oinetxeko ondorengoak 'antzinantzinako zaldun infantzoï' direlaz fedea ematen.

Ziur aski kaparetasunaren inguruko informazioa garaiko oraindik Espainiako kolonia ziren Peru eta Mexikora emigratu izanagatik beharko zuten, dokumentazioan agirieta batzuk Liman edota Mexikon idatzita direla aipatzen baita, eta gainera badakigu paskeldarren leinua luzatu egin zen herrialde haietan.

Azkenik, haien armariaren esanahia: Hiru dorretako gaztelua defentsa heroikoa erakusten du. Zilarrezko koartza, arriskua eragozten gatazkak irabaztea nabarmentzen du. Eltzea *jaun dirudunen* bereizgarria da eta ilbehera mairuei banderak irabaztea berekin ekartzen du.

Bidankozeko abizenak: Paskel

Aurreko zenbakian adierazten zen bezala, Bidankozeko abizenek eskaintako atal berri bat hasiko da. Miquel Martí-ren (*Bilizar*) informazioari esker aurkezten den lehenengo abizena Paskel da.

Lehenengo edo bigarren abizena Paskel duten azkeneko belaunaldiarekin hasten bagara, abizena Bidankozen bost belaunaldi daramatzala esan dezakegu. Paskel abizenak 1888. urtean Joaquín Simon Paskel Casado-ren (Bidankozeko erregistroan bere bigarren abizena 'Casau' azaltzen den arren) bidez iritsi zen Bidankozera. Joaquín Simon Erronkarikoa zen eta urte hartan Petra Salbotx Elizalderekin ezkondu zen, gaur egungo Paskel etxekoa zena. Egia esanda, Erronkarin jaio zen, bere aita, Salvador Paskel Ariño, herriko medikua zela eta baina hau Ezkako Salbatieratik zetorren, herri hau abizenaren ustezko jatorria izanda, ezkerreko zutabearen irakurri daitekeen bezala. Bitxikeria bezala, Salvador Paskelak Julian Gaiarre tenore ospetsuaren jaiotzan parte hartu zuela eta bere bataioaren aitabitxia izan zela nabarmendu daiteke.

Paskel abizenak Bidankozeko etxe bati ematen dio izena, Simon izeneko lehenengo Paskel hori iritsi zen etxea, baina urteak pasa ahala, ezkontza eta erosketen bitartez, abizena beste etxe batzuetara iritsi zen. Horrela izanda, Simon Paskelen seme-alaba batzuk Bidankozen jarraitu zuten Paskel (Felix), Malkorna (Exaltacion) eta Matxin (Sabino) etxeetan eta ondoren Refelna (Martzelino), Landa (Martin) eta Bilizar (Mari) etxeetara pasatu ziren, jatorrizko etxean (Krisanto) eta Matxin (Simeon)

etxean jarraituz. Hurrengo belaunaldiak Bidankozen jarraitzen du abizena hedatzen, aipatutako etxez gain, Bomba (Rosa Mari), Ferniando (Santos) eta Mux (Montse) etxeetara Paskel abizena iritsi da eta.


Argi dago Paskel familia emankorra izan dela eta abizena indartsu mantendu dela gaur egun arte.

Esanahiari dagokionez, ziurrenik, Paskel abizena hasieran Paskual izan zitekeen antzina Pasqual idazten omen zen eta. Esanahia ez zen beste bat izan 'Pasqual [-en semea]' baizik. Erronkaribarren halako beste abizenak ditugu, adibidez De Miguel eta Zaraitzun, De Andres eta De Carlos oso arrunt dira. Hau dela eta, Paskel abizena patronimikoen taldean sailkatu ahal izango genuke, hau da, aitaren izena aipatzen dutenak.

Bukatzeko, norbaitek 'baina Paskel abizena ez da Bidankozen betidanik egon' pentsatzen egongo da... eta agian apusturen bat galduko zuen egin izango balego. Bidankozarteren 10. zenbakian aipatzen genuen bezala Azaltegiaz hitzegiterakoan, 1586. urtearen inguruan Petri Pasquiel bat zegoen Bidankozen. Salbatierako elizako artxiboan Paskelak 1590. urtetik aurrera besterik ez direla agertzen kontuan izanda (kasualitatez Pedro Paskel bat, Bidankozeko Petri Pasquielen seme-alaba edo iloba agian), eta ez direla aurreko dokumenturik existitzen, ez zen arraroa izango Paskel abizena Bidankozen izatea jatorri eta guzti.

Baina beste behin, zalantzarekin jarraituko dugu.

Simon Paskel Casau eta Petra Salbotx Elizalderen arteko ezkontza-agiriaren aterakina (1888)



Oraingoan etxe misterioitsu xamar bati dagokio txanda, batik bat oroimena iristen den leku arte, aitzinean bertan bizi izan zen familiaz edota bere kideekin gertatuaz ez dago ideia garbirik.

Gaur egun *Peña* etxea bezala ezagutzen dena da, eta hainbat zalantza eta batez ere isilune handi sorrarazten dituen bere antzinako izenaz galdetzen dugunean.

Artikulu honetan zehar etxeari dagozkion kontuetan zalantzak uxatzen eta argia ematen saiatuko gara.

Orainalditik hasiko gara denboran pixkana-pixkana lehenaldira joaz. Egundik *Peña* etxea bezala ezagutzen dena, Juan Peñari donostiarrari zor dio izena, 1982. urtean eskuratu zuena. *Peña* Aldazabal familia Bidankoze herriarekin zuen harremana Donostiako Antigua auzoko *San Sebastian Martir Parrokiak* zituen udalekuei zor zien, 1970eko hamarkadaren hasieratik uda garaian *Fuertes* etxean egonaldiak egiten zituztelarik.

Eta lehenago, norena izan zen etxea? Ba etxearen zati bat *Pelaire* familiarena zen, bere etxetik gertuen zegoen aldea, eta beste zatia *Zinpintarna* familiari zegoen.

Badirudi 1860. eta 1982. urte bitartean etxe hartan ez zela inor bizi izan, eta itxura denez banatua geratu zen berez *Inigizena* etxean jaiotako eta beste etxetara ezkondukoen artean, *Pelaire* familia batetik eta *Lengorna* bestetik, beranduago bigarren zati hau *Zinpintarna*koentzat igarotuta izanda.

Etxearen historian atzera eginez, eta 1860. urtean kokatuta, zergatik geratu ote zen hutsik etxea? Ba 1860ko apirilean bere azken bizilaguna zendu zelako: Ramona Guillen Martin hain zuzen ere, Garden jaiotakoa eta Bidankozera 1838an iritsi zena etxe oinordekoarekin ezkontzera, hau da, Pedro Jose Anaut Arregirekin. Azken hau, bost urte lehenago zendu zen, seguruenik 1855. urtean abuztu eta irailan zehar Bidankoze herria kolpatu zuen kolera izurriteraren lehen biktima gisa. Bikoteak alaba bat besterik ez zuen izan, bi urte eskasekin hil zena, hortaz, bikotea hil ostean etxea hutsik geratu zen.



Peña etxe (garai hartan *Inigizena*) antzinako argazkia, 1970 ingurukoa.

Peña Etxea

Pedro Joserren eta aurreko beste bi belaunaldien abizena medio, etxea *Anaut* etxea bezala ere ezaguna izan zen, abizena 1756. urtean iritsi zelarik, hain zuzen Domingo Anaut Conget izabarra Juana Ygnacia Hualde Glariarekin ezkontzerakoan, ziurrenik azken hau etxe honetako oinordekoa izanda.

Orduan, noraino egin behar dugu atzera etxearen jatorrizko *Inigizena* izena topatu ahal izateko? Ba senar emazte hauen aurreko belaunaldiraino, *Inigizena* '*Inigiz-en etxea*' besterik ez baitu esan nahi, Bidankozen XVIII. mende erdi arte existitu zen abizena. Berez, azken *Inigiza*, Pedro izenekoa, 1754. urtean zendu zena eta ziurrenik elizgizona, kapilautza bat sortu zuen bere izenean 1854. urterarte iraun zuena.

Peña etxea, *Anaut* etxea edo *Inigizena* etxea, modu sakonagoan ezagutu dugun beste etxe bat.

Auzia txerritegi batengatik

Gertaera hau gain-gainetik Bidankozarteko 16. zenbatian aipatu zen, *Xoko* etxearen izenaren jatorriaz aritu ginenean.

1830. urteko ekainean Bidankozeko bi etxe elkarren artean lehia zebiltzan. Zehatzago, gertaeran inplikaturikoa Santiago Sanz Hualde (prozesuaren izenburuan akats batengatik Sebastian bezala aipatzen dena), *Zoko* etxe (horrela aipatzen baita agirian egundik *Xoko* etxea deiturikoa), eta Paskual Anaut Hualde, *Nigizena* etxe (egundik *Peña* etxea, eta antzina *Inigizena* deiturikoa).

Eztabaidaren erdigunea *Xoko*

etxearen txerritegia, ustez bi etxeen artean dagoen lursailean kokatuta egongo zena (agian desagertutako *Montes* etxearen orubean), eta txerritegi bat zegoen tokiaren jabegoaren inguruko zalantza egonda, *Inigizena*koak justizia bere esku hartu eta aldamenekoaren txerritegiaren zati bat erabitsi zuen.

Xoko etxeak, zentzuzkoa den bezala, ez zen konforme geratu eta, modu onean konponbiderik ez zegoenez, azkenean auzitegiratu jo zuen.

Zertan geratu zen auzia? Erantzuna Nafarroako Artxibo Orokorren 141162 prozesuan.



Azken bi zenbakietan ez egon ondoren, toponimiako atala bueltan da *Bidankozarten*. Oraingo honetan aukeratutako barrutia *Iturribeltza* da, batzuen ahotan *Turrubeltza* bezala ahozkatua izan dena ere.

Toponimo honek Bidankozeko herrigunearen hegoaldean dagoen dermioa da, izena ematen dion iturriaren inguruetan, Burgirantz doan errepidea jarraituz kilometro bat baino gutxiagoko distantzian. Paseoan sarritan ateratzen diren ibiltariek oso ongi ezagutzen dute.

Gehienek oroituko duten moduan, duela urte batzuetara arte aska bat zegoen bertan, errepidearen ondoan, aberek edan zezaten, eta Burgiko errepidearen azken zaharberitze lanetan kendu egin zen. Hala ere, aska zegoen tokian, hura hornitzen zuen ur-

jarioa ikus daiteke oraindik, bere bidea lurretik jarraituz, inongo kanalizaziorik gabe.

Iturribeltzak esanahi oso garbia dauka, *iturri* + *beltza*. Ziurrenik izen honek bertako ibilguan kokatzen den haitzaren kolore ilunari erreferentzia egiten zion, pako batean baitago, eta hortaz, harriak zailtasun handiak baititu lehertzeko, eta horrek ematen dion tonu ilunak iturriari eman dio izena

Toponimoari dagokionez, ikerketek adierazten duten moduan, (*Erronkari eta Ansoko toponimia*, López-Mugartza, J.K., 2008) kasu bitxi baten aurrean gaude, izan ere, Erronkariko beste herrietan gertatzen ez den bezala, non iturri bat izendatzeko aldaera arruntena '*uturri*' den, Bidankozen ohiko '*iturri*' da, Zaraitzun aurkitzen dena bezalakoxea.

Iturribeltza

Era berean, kasu hau beste hainbeste erro linguistikorekin ematen da, *Gazteluzarrako* '*gaztelu*'-rekin gertatzen den moduan, Erronkariko gainerako herrietan '*gatzulu*' forma hartzen duena, toponimoa '*Gaztuluzarra*' bihurtuz.

Bidankozeko hizkeraren xehetasun linguistikoak alde batera utzita, azpimarragarria da *Iturribeltza* leku-izena gaur egun arte biziraun duen iturri bati dagokion euskal jatorriko toponimo bakarra dela. Bitxia da, izan ere, lurraldea ezagutzen dutenen arabera, Bidankozeko udalerrriaren baitan 50 iturritik gora baitaude, bakoitza bere izenarekin. Bere garaian izen hauek *iturri*(...) edo (...)-*iturri* izanen ziren gehienetan.

Horrela, Bidankozeko dokumentu zaharretan, *Alkateiturria* (1668), *Iturizarra* (Igarikoek gure Estozi horrela deitzen zuten) edo *Iturrotxodokia* (zeina Crisanto Pasquelen [*Paske!*] ustetan, *San Juango Moskeraren* antzinako baliokidea izango zen) bezalako dermioak aurki daitezke.

Azkenik, aipatzea 1990eko hamarkadako hastapenetan Bidankozen areto-futboleko talde bat egon zela *Turrubeltza* izena zuena, herriko talde nagusiaren antzeran, *Pitxorranga* alegia, toponimo bat aukeratuz.


Donata Jimeno Ornatzen mendeurrena (1991/08/07)

Duela 25 urteko udak gertaera ezohiko bat izan zuen: Donata Jimeno Ornat [*Garro/Largotena*] bidankoztarrak 100 urtera iritsi zen, eta horregatik herriak omenaldi xumea eskaini zion. Eguna *Largotena* etxe aurrean hasi zen auroroen kantuekin, meza bat eta etxeko atean eskainitako gosegarri bat gero, eta familia bazkaria ospakizunei amaiera emateko.

Bitartean, Donatak osasun bikaina eta bere izaera sendoa erakutsi zuen bai bere mendeurren egunean eskaini

zioten egunean, bai egun batzuk beranduago uda horretan Bidankozen ospatu zen *Erronkaribarreko Erretiratuen Egunean*, baita ere hainbat hedabidetan bere 100 urteko aitzakiarekin egin zizkieten elkarriketetan.

Donata Bidankozeko lehenengo ehun urte betetakoa izan zen, baina ez da bakarra, 14 urte beranduago Ciriaco Salbotx Juankok [*Salbotx*] ere garaitu baitzuen 100 urteko muga.



Diario de Navarra
1991/08/07